




**Hurbilagok poltsa  
berrerabilgarriak  
banatuko ditu bere  
bezeroen artean**

**Matrikulazio garaia  
hastera doa Zumarten**

**Kultur Birak beteko du jaien hutsunea:  
“Era guztietako gustuak  
asetzen saiatuko gara”**



# Antxi

Patri<sup>enea</sup>  
Jatetxea

**AFARI ZERBITZUA  
BERRIRO!!!**

- bazkariak **EGUNERO**
- **AFARIAK**: ostiral eta larunbatetan  
(22:00etan itxi behar)

☎ 943 362725 · ☎ 688 690 361

kale nagusia 14. 20170 Usurbil



## Antxeta

TABERNA

JAN  
ARI  
A

JASOTZEKO EDO ETXERA  
ERAMATEN DUGU

- egunero irekitzen dugul**
- eguneko menua  
(astelehenetik-larunbatera)
  - jaiegunetan: karta
  - ogitartekoak, pintxoak, razioak,  
oilasko erreak, hanburgesak,  
pizak..


Zubiaurrenea 6, Usurbil. Tel: 943 37 03 44

# Herri Batzarra

Herriko koodinatzaile  
eta ordezkarien  
hautaketa

Maiatzak 22 · 10:00  
Sutegiko erakusketa aretoan

Izena emateko: [labur.eus/Q2rEJ](http://labur.eus/Q2rEJ)



**ehbildu**  
USURBIL

## Albisteak iruditan

# Erosketak herrian egiteko, Hurbilagoren poltsa berrerabilgarriak

**E**rosketak bizi garen herrian bertan egiteko erraztasunak eskaintzen ditu Hurbilagok; iaz erosketa-organak zozketatu zituen. Duela bi urte poltsa berrerabilgarriak eta orain ere bai; Hurbilago Elkartearen kide diren herriko saltokietan erosketak egitearen truke doan jaso ditzakezue laranja koloreko poltsa deigarriak.

Produktu anitz sar daitezke bertan, euskarri ezin egokiagoa, erosketa tresna honetako aldarriak dioen moduan, Usurbilen bizi eta Usurbilen erosten segitzeko. Eta berrerabilera sustatzeko baita noski.



Hurbilagoko saltokietan erosketak egitearen truke doan jaso ditzakezue poltsa berrerabilgarriak.

## Laburrean

## Eremu laranja igaro gara

Apirilaren 21etik eremu gorrian egon ondoren, laranja igaro zen Usurbil asteartean. Astebeteko tartean 697,53tik 396,32ra murriztu da Covid-19aren 100.000 pertsonako 14 eguneko intzidentzia udalerrri honetan.

## Covid-19a dutenentzat, hondakinen biltzeta berezia

Covid-19a duen norbait izanez gero etxean, Atez Ateko bulegora deitzea eskatzen du Udalak (900 776 776), hondakinak aparte biltzeko. "PCR probaren lehenengo emaitzaren zain bazaude, ez atera hondakinik", eskatzen du Udalak.

## Sutegin, LGTBIQ+ fobiaren aurkako eguna gogoan

Egun hau gogoan hartuta, eduki ugari eskuragarri dugula gogorarazi digute Sutegi udal liburutegitik: "Maiatzak 17, LGTBIQ+ fobiaren aurkako eguna, baita Sutegi udal liburutegian ere. Zatoz, eta aukeratu!".

# noaua

Kultur Elkarte  
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil  
943 360 321 /// [elkartea@noa.ua.eu](mailto:elkartea@noa.ua.eu) /// [www.noa.ua.eu](http://www.noa.ua.eu)  
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:**  
Idoia Torregarai.  
**Aldizkariko koordinatzailea:**  
Imanol Ubeda.  
**Idazkaria:** Alaitz Aizpurua.  
**Diseinua:** Erroit S. L.

**Erredakzio kontseilua:**  
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

**Publizitatea:** Beatriz Alda,  
[publizitatea@noa.ua.eu](mailto:publizitatea@noa.ua.eu)

**Banaketa:** Iñaki Irazusta,  
Iban Maritxalar.  
**Tirada:** 2.930 ale.  
**Lege-Gordailua:** SS-668-96  
**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu  
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

**Harremanetarako:**  
[erredakzioa@noa.ua.eu](mailto:erredakzioa@noa.ua.eu)



## Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak  
Euskal Herrerria!



Ugaitz Agirre Zapirain

**E**rredakzioan mezu bat jaso dute. Ezin sine-tsirik, Imanolek Aritz deitu dio ea irakurri berri duena benetakoa edo lo gutxi egitearen ondorio ote den. Aritzek berretsi dio: neomartitzarrek (duela bilioika urte Martitz planeta klima-aldake-tagatik abandonatu behar izan zuten martitzarren ondorengoek) Usurbilgo Sagardo Eguna ezagutzeko gogoak dituztela. Honela jarraitzen du: “Baina Noauatb atariko bideoetan ageri den bezain ona ez bada, konkista eta menderakuntza neurriak hartu beharko ditugu. Ez zaizkigu gezurtiak gustatzen”.

Horrelako mezu batek bro-ma behar du izan. Nori bururatuko zaio, ordea, halako istorio bat? Bestelako lanak albo batera utzita, mahaiaren bueltan jarri dira bi kazetariak gaia ondo aztertzen. Hainbat deiren ondoren, urgentziatzko udalbatza deitu dute gonbidatuta Sagardo Egunaren antolaketan aritzen direnak udal aretora. “Hau zer da, txiste bat?” bi kazetarien azalpenak entzutean han bildutako batek. “Seguru talde klandestino parrandazale batek bidalitako mezua dela, Baxurdetan egositako konspirazioaren bat”.

Bat-batean, danba! Joxe Martin Sagardia enparantzan

## Usurbildarrak daukate



“Hainbat deiren ondoren, urgentziatzko udalbatza deitu dute gonbidatuta Sagardo Egunaren antolaketan aritzen direnak udal aretora”.

### UGAITZ AGIRRE

**“Azkenerako iritsi da igande preziatua. Goizean goizeko muntaketa lanak. Gero hamaiketako eta lehen botila irekitzea. Hasi da festa!”**

lurrartu du altzairuzko zaldiek —zeinei sua darien sudur zuloetatik— bultzatzen duten gurdia. Udaletxeko balkoian denak harri eta zur. Gurditik martitzarrek jaitsi dira: bi metrotik gorako izaki arrosak, antzinako mitologia batetik ateratakoak dirudite.

“Arratsalde on usurbildarrak”, hasi da hizketan denen burua dirudienak. “Badakigu goiz iritsi garela. Kontua da hona gentozela aprobetxatuz, gure arbasoen planetan bueltatxo bat eman nahi genuela. Baina tramankulu arraroak ikusi ditugu, eta badaezpada, alde egin dugu handik”. “Ez,

hau ez da Baxurdetan egositako konspirazio bat”.

Udaletxean bildutakoek egunaren antolakuntzaren azken ñabardurak zehazten ari direla esan diete bisitariei. Hamar martitzarrek ostea herritik barrena ibili da udal-korporazioak lagunduta, eta kaletik dabilzan usurbildarrak flipatuta geratzen dira —“Zer zeraman zurito honek?”. Martitzarren buruak galdetu du ea zergatik daramaten maskara. Pandemia batean daudela erantzun diote. “Baina Sagardo Eguna egingo da ezta?” Korporazio guztiak burua gora eta behera mugitu du antsiaz. “Eskerrak, lan ederrak izan ditugu eta abestia ikasten. Joder... nola hasten zen?” “Dezepzio handia litzateke halako lanak hartu eta ezertarako balio ez izatea”, beste martitzar batek.

Sagardotegiei deitu, bazkaritakoei, txaranga, karpa, edariak, kontzertuak, hizlariak,

Jakoba Errekondo, izotza, trapuak, edalontziak... Inoiz ez da hain azkar antolatu Sagardo Eguna. Eta bitartean, Labitik deika ea zer egiten ari diren Usurbilen. Martitzarrena azalduta ere, inork ez du sinesten. Hala eta guztiz, halako batean sinestera iritsi dira, penaz edo. Baina osasun-hesia jarriko diotela herriari: erabateko konfinamendua Israelek Palestinari jarritakoaren parekoa.

Azkenerako iritsi da igande preziatua. Goizean goizeko muntaketa lanak. Gero hamaiketako eta lehen botila irekitzea. Hasi da festa! Patxi Zorrotzek oholtzara igo arazi ditu martitzarrek eta kantuan hasi dira usurbildarrak daukate sagardo alkate. Ostein, postuz-postu joan dira ea ze sagardo dagoen hobe dastatzen. Edan eta edan, eta hasieran bezala jarraitzen dute. “Hauek ez al dira mozkortzen?”, galdetu du batek. Bazkaritan ere beste horrenbeste dzingi-dzanga, eta gero txarangarekin poteoan tabernaz taberna. Gibela egin gabe pandemia eta pandemia-ondo tarteko, usurbildarrak gudako soldadu eroriak dirudite, edandako dena sartu tokitik botatzen: soinu ezatseginak.

Begiak zabaldu ditu Imanolek, izerditan blai. “Amesgaizto madarikatua!”.


Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpiroz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Luis Aranalde

### Komikia



# Lurraldebusen zerbitzu luzapena

Estatu alarma ezabatu eta ostalaritza nahiz beste-lako jarduerak gaueko 22:00etan amaitzeko agindua eman zenetik, gaueko 23:00ak arteko autobus zerbitzu hainbat berreskuratu ditu Lurraldebusak.

Usurbili dagokionez, Donostiatik udalerrri honetarantz astelehenetik igandera gaueko 22:15ean eta 22:45ean abiatuko dira azken zerbitzuak.

Usurbildik Donostiarantz, 21:45ean astelehenetik ostegunera, ostiraletan 22:35ean, larunbat eta igandetan 23:05. Informazio gehiagorako: lurraldebus.eus / 900 300 340.



Gaueko 23:00ak arteko zerbitzua berreskuratu ditu Lurraldebusak.

## Bide mozketa

Telesail bat grabatu behar dutelako, Arratzain eta Igara arteko bideko joan etorriak etenda geratuko dira ostegun honetan (maiatzak 20), 9:00-19:00 artean, Usurbilgo Udalak berri eman duenez.

## Sendabelarrei buruzko tailerra

Santuenea Elkarrekin antolatutako tailerra maiatzaren 21ean eta 28an izango da, 18:00-20:00 artean auzotarraren bilguneak Santuenea 12a helbidean duen egoitzan.

Izen ematea aurrez bidera daiteke 670 027 731 telefono zenbakira deituta.

## Ika-mika

# Batzarre (Aurrera Gttunk eta 4)

Usurbilgo Batzarre-ren eraketa beharrezkoa eta ezinbestekoa da, baina ez da nahikoa izango. Lanik zailena izango da gutxi batzuen obedientzian kultura-aldaketa lortzea, batzuek "Boterearen lagun diren jauntxoak" deitzen diotenak.

Horretarako, Boterearen lagunek eta alderdiko peoi funtzionario obedienteez uko egin beharko diote lehen ilaran egoteari, eta ez dute Batzarre-ren sorreran kalterik egingo. Denbora ez zaigu soberan. Ez dago bigarren aukerarako astirik. Euskal Herria hil egiten da. Ama euskaldunarengandik gu-

txi jaiotzen da.

Baina, era berean, beharrezkoa izango da ikusleek parte hartzea eta guztien ongia bilatzeko konpromisoa hartzea.

Hori da Usurbilen egin eta lortu beharreko kultura-aldaketa zaila. Batzarre-ren eraketa berez ez da nahikoa izanen.

Usurbilek katarsia behar du, deskonposizio eta desegitura-tze politikoko agonia honekin amaitzeko. Garrantzia politikorik gabeko lurraldea. Boterearen lagunek ekarri diguten portua. "Berria" jaio ahal izateko, lehenbizi zaharrak hil egin behar du.

Hala ere, kultura-aldaketa hori lortzeko, abantaila bat dugu: Euskal Herrian, Batzarrea leku berezia da, bertan parte hartzen duten pertsonen "Elkar-en arima" sentitzen dute. Gure kultura matrilinealaren iturria, Euskal Sena deitzen dugun gure axiologia etikoaren iturria, edo Odon Ulibarrena, "Gizabidea" liburuan.

Abantaila hori isatsaren haizea da, arestian aipatutako aldaketa kulturala egiten lagunduko diguna.

Batzarre-n parte hartzaileei konfiantzazko giroa eskaini behar zaie eztabaidarako,

bertan legitimatu eta desadostasuna eskertzeko. Ulermen, pazientzia eta pentsamendu libreko gunea. Eztabaida ondo egiteko tokia. Ni pertsonalaren autoeraikuntzarako ikaskuntza-gunea. Ni kolektiboa nork bere kabuz eraikitzen ikasteko gunea, burujabetzan bizi ahal izateko, berandu baino lehen.

Gaur hartzen ditugun erabakiek edo hartzen ez ditugunek eragina izango dute 20 urte beteko dituzten hurrengo belaunaldien bizitzan. Aurrera Bolie! Aurrera Gttunk!

Gabriel Valin

Okindegia-Gozotegia  
**LABE-GOXO**

**ANORGA TXIBI S.L.**  
**KRISTALDEGIA**  
· komertzial instalazioak · beira bikoitza  
· segurtasun beirak · dutxa-itxiturak eta irristailuak  
· ispiluak · barandak · kristal mota guztiak...  
Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

Zuen  
publizitatea  
hemen  
943 360 321  
publizitatea@noaua.eus

# Uda honetan Kultur Birak, pluralean

Ziklo bakar baten baitan, jira-bira bat baino gehiago egingo ditu kulturgintzak aurtengo udan Usurbilen barrena. Covid-19ak eragindako osasun krisialdi batean segiko dugunez, 2019ra arte bizitako festarik ez eta horren orde, iazko Kultur Biraren formula berreskuratu dute Udalak eta herri eragile anitzek datozen hilabeteotarako. Bigarren edizio honetan, Kultur Bira bakarra ez, Kultur Birak, pluralean izango ditugula iragarri dute.

Argi zioten; egoera ez da aldatu, iaz bezala, Covid-19ak eragindako osasun krisialdiak baldintzatuko du baita aurtengo uda. Honenbestez, 2019ra arte bizi izan genituen ohiko jaietz ezingo dugu gozatu. Baina alternatibarik bada, ohi denez, izaera sortzaile nabarmena duen Usurbilgo bizitzan; Kultur Biraren bigarren edizioaren jiran murgilduko gara datozen hilabeteotan.

Iragan ostiralean aurkeztu zuten hain zuzen, ziklo honen balizko eskenatokitako batean; Udarregi Ikastola pareko zelai berdean. Kultur Biraren bigarren edizioari heltzea erabaki dute agerraldian parte hartu eta egitasmo honetara batu diren udal eta herri eragileek, “guretzako kultura eta



Aurten, Usurbilgo herriko jaiak soilik ez, auzo-herrietakoak ere ordezkatu dituzte Kultur Birak.

## KULTUR BIRA

**“Auzolanaren aldeko apustua berretsi dute; Kultur Bira nagusi baten baitan, bira bat baino gehiago iragarri baitituzte”**

kulturgintza ez delako soilik aisialdia eta denborapasa. Guretzat, Usurbilgo, eta oro har Euskal Herriko kulturgintza gure herri nortasunaren oinarria da eta baita etorkizunean eraiki nahi dugun herriaren zutabea ere”.

## Auzolana indartuta

Agerraldian parte hartutako eragileek eskaini nahi zuten irudiaren isla izan nahi du Kultur Birak; auzolanarena. “Badugu argazki honetan, ederki asko ikusten den herri eragileen arteko elkarlan bikain bat”, herri eragileon esanetan, “iazko ekintza handi hartatik azpimarratu dezakegun gauza onena. Aurten horrekin gatoz eta hori indartzen dugu”.

Auzolanaren aldeko apustua berretsi eta indartu dute aurtengo ediziora begira; Kultur Bira nagusi baten baitan, bira bat

baino gehiago iragarri baitituzte. Aurten, Usurbilgo herriko jaiak soilik ez, auzo-herrietakoak ere ordezkatu dituzte Kultur Birak. Santuenea, Urdaiaga, Kalezar, Atxegalde eta Aginagako jai batzordeek bat egin dute egitasmo honekin, beste herri eragile batzuen artean. “Iaz antolatutako ezin genuen arren, aurten ikusi dugu Kultur Biran parte hartuta, San Juan hauek hainbat aukera ematen zizkigula plataforma eta baliabideen aldetik”, nabarmendu zuen aurkezpen saioan parte harturiko Kalezarko Jai Batzordeko ordezkarietak.

## “Kulturgintza behar dugu, kulturgintzak behar gaitu”

Adin tarte nahiz zaletasun guztiak asetzeko moduko Kultur Birak izango ditugu hilabeteotan. “Iazko funtzionamendu bera izango du”, iragarri dute herri eragileek. Sarrerak eskuratzeko usurbilkultura.eus plataformara jo beharko dugu, segurtasun protokolo baten baldintzapean ospatuko dira ekitaldiak.

“Osasun neurriak bermatuak izango dira”. Plazaratuko duten kultur eskaintzan nabariko den moduan, antolakuntza ereduari ere aniztasuna dario. “Lehenengo urtera arte eragile ezberdinek, gure ekitaldi propioak antolatzen genituen, baina iazko esperientzia aitzakia ona izan zen ikusteko, elkartuta, ekimen politagoak, entretenigarriagoak,

aberatsagoak antola daitezkeela. Iazkotik ikasita eta ezohiko egoeratik ezohiko erantzunak ematen ikasi behar dugulako, aurtengoan ere eragile ezberdinak elkartu gara”.

Kultur Biraren egitarau zehatza, aste gutxi barru aurkeztuko dute. Momentuz, kultura herrian barrena jira-biran ibiliko den hilabeteotako hitzor-

duetan parte hartzeko gonbita luzatu digute. “Animatu bai usurbildarrak, bai Usurbildik kanpo dauden kulturzale guztiak bira hauetara. Kulturgintza behar dugula erakutsi digu pandemia mardikatu honek, baina kulturgintzak ere behar gaituela ere bai. Animatu eta bertan elkar ikusiko gara”.

# Kultur Bira luzeagoa, eragileen parte hartze zabalagoarekin

Aurten ere izango ez ditugun ohiko jaiak ordezkatzeko dituen 2021eko Kultur Bira iazko estreinako edizioa baino luzeagoa izango da, auzoetako jai batzordeek ere bat egin baitute ekimenarekin.

Honez gero zalantzarik ez da goen moduan, oraindik ere Covid-19ak eragin eta kontrolpean ez den osasun krisialdiaren eraginez iaz bezala aurten ere ez dugu 2019ra arte bizi izan genituen herriko nahiz auzoetako festarik izango. Ez behintzat, duela bi urtera arte ezagutu genituen modu berean. Baina iaz estreinako antolatu eta bideratu zen Kultur Birak erakutsi zuen, garai zailetan ere badela alternatiba bideragarriak.

Ildo hari segita erabaki dute 2021eko bigarren edizioa antolatzea. Aurtengoan denbora gehiagoz izango dugu kultura biran, ziklo luzeagoa izango da. Parte hartze zabalagoarekin; iaz bezala eragile anitz bildu dira aurten antolaketa lanetara, gehiago eta eremu zabalagoak. Hortxe baita aurtengo berrietasun nagusia; iazko Kultur Bira



Egitaraua aurrerago ezagutzera emango duten arren, zenbait xehetasun aurreratu dituzte.

## KULTUR BIRA

**“Kultur Bira guneotara hedatuko da; Usurbil, Kalezar, Urdaiaga, Santuenea, Atxegalde edota Aginagara”**

betiko herriko festen ordezkatu zen. Aurten, auzoetako jai batzordeak ere ekimen honetara batu dira eta honenbestez, Kultur Bira ere gune guztietara hedatuko da; Usurbil, Kalezar, Urdaiaga, Santuenea, Atxegalde edota Aginagara.

## Kalezar eta Usurbil, lehen geltokiak

Egitaraua aurrerago ezagutzera emango duten arren, zenbait xehetasun aurreratu dituzte; lehen bi Kultur Birenak hain zuzen. Kalezarko San Juanen ordezkatu dena, Kalezarren bertan ekainaren 23tik 27ra. Eta Usurbilgoa, aurtengoan, ekainaren 11n hasi eta uztailaren 17ra arte luzatuko dena.

Iazko baliabideen aldeko apustua egin dute aurtengorako ere; sarrerak eskuratzeko usurbilkultura.eus plataforman baliatzen segi beharko da. Ekitaldietarako iaz bai antolatzaileek baita parte hartu zutenek

zorrotz bete zuten segurtasun protokoloa ezarriko da.

## Artixten Gaua

Iazko estreinako edizioan bezala, aurtengo zikloaren baitan ere Artixten Gaua ospatuko da ekainaren 19an. Duela urtebete bezala, aldi berean hiru gune desberdinetan. Antolakuntza, herriko sortzaileen emanaldiekin osatuko den hitzordurako parte hartzaile bila babil. 15 minutuko emanaldi laburrak prestatu behar dira.

## Informazio gehiagaroko:

660 614 715

usurbilgokulturbira@gmail.com

## Usurbil eta Kalezarko Kultur Birak, abiapuntuak

### Eragileak:

Usurbil, Kalezar, Urdaiaga, Atxegalde, Santuenea eta Aginagako Jai Batzordeak, Xauxar Txosna Batzordea, NOAUA! K.E., Hitz-Aho Udarregi Ikastolako guraso elkarrekin edota Ziortza Gazte Elkarrekin.

### Birak:

■ Lehen birak: Kalezarko eta Usurbilgo Kultur Birak.  
■ Hurrengoak: Urdaiaga, Atxegalde, Santuenea eta Aginagako Kultur Birak.

### Usurbilgo Kultur Bira

■ Ekainak 11-uztailak 17.  
■ Tokiak: Artzabalgo frontoia eta Udarregi Ikastolako patio borobila. Eguraldi onarekin Udarregi Ikastola pareko zelaia.  
■ Egitaraua: bira abiatu aurretik, astebete lehenago etxetik banatuko dute egitaraua.

### Kalezarko Kultur Bira

■ Ekainak 23-27.  
■ Tokia: Kalezarko plazako karpagunea.  
■ Egitaraua: bira abiatu aurretik, auzoko postontzietan

banatuko dute egitaraua. Herri osoan NOAUA! nahiz usurbilkultura.eus bidez ezagutaraziko da.

### Sarrerak eskuratzeko:

usurbilkultura.eus

### Oharrak:

■ Usurbil eta Kalezarko Kultur Birak garai berean egokituko direnez, bi eremu berezitu izango ditu usurbilkultura.eus atariak, bateko zein besteko ekitaldietan izen emateko.  
■ Ekitaldi bakoitza baino bi

egun lehenago sarreraren zozketa.

■ Zozketaturiko sarrerak nor-tzuei egokitu zaizkien email bidez jakinaraziko da.

■ Ekitaldi guztiak une horretako osasun krisialdiari lotutako egoerara egokituko dira.

### Kultur Bira sarean:

■ usurbilkultura.eus  
■ facebook.com/usurbilgokulturbira  
■ twitter.com/kulturbira  
■ instagram.com/kulturbira/  
Antolatzaileak: Usurbilgo herri eragileak eta Udala.

# PSE-EEK Turismoaren Kode Etikoarekin bat egitea proposatu du

Turismo iraunkorra eta arduratsua erakartzeko xedez, Usurbil eragile “proaktibo” bihurtzea proposatu du PSE-EEko zinegotziak. Bide horretan, Beterrri-Buruntzako Garapen Agentziaren eta Behemendi erakundearen bidez, sentsibilizazio-kanpaina bat egin dezala eskatu dio udal gobernu taldeari. Herriko saltoki, taberna eta hoteletan Euskadiko Turismoaren Kode Etikoak jasotzen dituen printzipioak helarazteko eta, bide batez, eragile guztiei kode horri atxikitzeko aukera eskaintzeko.

Patxi Suarez Usurbilgo udal talde sozialistaren bozeramailearen esanetan, Turismoaren Kode Etikoaren helburua da erakunde turistiko guztiek erantzukizun sozialak bere gain hartzea. Nola? Ingurumenaren zein ekonomiaren iraunkortasuna eguneroko jardunean txertatuz.

Usurbilek Kode Etiko honekin bat egingo balu, “tokiko



Patxi Suarez PSE-EEko zinegotziaren esanetan, “kide izatea doakoa da eta trukean Turismo Sailak aholkularitza eta prestakuntza eskaintzen du”.

## PATXI SUAREZ, PSE-EE

**“Covid-19aren pandemiak eragindako krisi ekonomikotik errekuiperatzeko turismoa giltzarri izan daiteke”**

kultura eta tradizioa eta kultura-ondareko elementuak errespetatzeko eta zaintzeko konpromiso garrantzitsua” hartuko luke. “Horrela, tokiko gainerako eragileekin batera turismo-jarduerekin bat egin dezan eta jarduera horien on-

ra ekonomiko ez ezik, sozial eta kulturalak ere jaso ditzan, batez ere enpleguarenak”.

Patxi Suarez PSE-EEko zinegotziaren esanetan, “kide izatea doakoa da. Ez da kuotarik ordaindu behar eta Eusko Jaurlaritzako Turismo Sailak aholkularitza eta prestakuntza eskaintzen du trukean”.

Alderdi sozialistaren esanetan, “esan gabe doa Usurbilek euskal kultur ondare aberats eta berezia duela, tradizioa eta modernitate modu naturalean uztartzen dituen. Usurbilek

‘potenzial’ turistiko handia du, oraindik ezagutu gabea, eta Covid-19ren pandemiak eragindako krisi ekonomikotik errekuiperatzeko turismoa giltzarri izan daiteke”.

Patxi Suarezaren esanetan, turismo jasagarri eta arduratsuen alde lan egiten duten eragileen komunitateko kide izateak “munduaren aurrean aurkeztea” ahalbidetuko du, “Usurbilek duen funtsa galdu gabe, kultura-, gizarte- eta ingurumen-errespetua sustatuz, baina gure garapen turistiko modu lehiakorrean kudeatuz”.

Bide honetan, Javier Hurtado sailburuak zuzentzen duen Eusko Jaurlaritzako Turismo Saila, Reyes Maroto Turismo ministroa eta bere taldea lurraldeen ezagutza turistiko hobetzeko eta turismoa bultzatzeko planekin garatzen ari diren lana nabarmendu nahi du Suarezek, eta estrategia horietan “Usurbilek aukera du bere toki interesgarriak, monumentuak, eskulturak eta muralak eta bizilagunak ezagutarazteko”.

## “Elhuyar Solasaldiak”, sarean ikusgai

Covid-19aren korapiloak deslotzeko saioa, zaintzaren demokratizazioa, pentsamendu kritikoa, ekonomiaren berre-raikuntza ekologikoa edota adimen artifiziala hizkuntzan. Gai interesgarri asko jorratu dituzte asteotan Sutegin bideratu den “Elhuyar Solasaldiak” zikloan. Apirilaz geroztik, pandemiak orain arte utzi eta etorkizunean ekar

dezakeenaz hausnartzeko aukera izan da kultur etxean, Udalaren eta Elhuyarren eskutik. Hainbat adituk parte hartu dute. Kultur etxera joan ezin izan zutenentzat, streaming bidez eskaini dira saio guztiak zuzenean. Proiekzio guztiotako bideoak, saioak osorik Youtubeko “Elhuyar” kanalean ikusi eta entzun ditzakezue.



Youtubeko “Elhuyar” kanalean ikusi eta entzun ditzakezue bideoak.



# Floxbin: “Sormenean bizi gara”

Jada bi disko (“Hil arte bizi” eta “Ak!”) kalean dituen Usurbilgo metal taldeak, bide berri bati ekin dio garai zail hauetan; abestiak sortu ahala partekatzeari. “Gure lana era xumean aurkezteko era polita iruditu zaigu”, adierazi diote lerrootan NOAUA!ri. Bi kanta plazaratu dituzte hilabeteotan, baina berriak datoz bidean.

**NOAUA! Berriki partekatu duzue Youtube bidez urteko zuen bigarren abestia. Zer dio “Raus von hier” kantak?**

**Floxbin:** Abestiaren aldarria “Alde hemendik” lelo ezaguna litzateke. Energia negatiboz gainezka dauden pertsonak aldamenen ez ditugula nahi adierazteko. Alemanieraz jartzea erabaki genuen.

**Sortze lan prozesu modu hau errepikatu zenuten urte hasierako “Suge begi” kantarekin ere.**

Konfinamendu garaian egokitu zenez, hitz aldetik abesti



“Bi kanta plazaratu dituzte hilabeteotan, eta berriak datoz bidean”.

## FLOXBIN

**“Raus von hier abestiaren aldarria ‘Alde hemendik’ lelo ezaguna litzateke”**

arraroena, nahasia da. Hausnarketa ezberdinak ditu, alde negatibo, positibo balantza hori, oreka. Abestiak sortzeko prozesua, beti berdintsua da. Metala egiten dugu, kitarrak

garrantzia handia du eta normalean harrapatzen gaituen “riff” bat ateratzen dugu. Hori tiraka abestiaren hasiera eta bukaera landu, ahotsaren melodia pentsatu, eta hitzak sortzen ditugu. Oso lasai lan egitekoak gara.

**Zuen lanketa moduaren adierazle abesti berrien artean hartzen duzuen tartea.**

Kanta bat sortzeko hiruzpa-

lau hilabeteko tartea hartzen dugu. Orain arte iraupen luze-ko bi diska ditugu, bakoitza hamarna abestikoa. Bizpahiru urte eskaini dizkiogu diska bakoitzari. Abesti batekin hasi, tratatu, beste bat hartu eta segida eman... Hala ibili izan gara. Azken urtean ordea, abesti bat grabatu eta aurkeztea erabaki dugu. Bestela, disko baten lanketa luzea egiten zaigu. Gainera, emanaldi gabeko urtea izan da, helburu bat finkatu beharra genuen.

**Zergatik aukeratu duzue Youtube bezalako plataforma bat zuen kantak plazaratzeko?**

Batez ere irudiak jartzeagatik. “Suge begi” abestian, lokalean irudi batzuk grabatu genituen, guk muntatu ditugu. Bestela, Bandcamp atarian zintzilikatzen ditugu gure diskak eta abestiak. Aukera ona da, ordainduta nahi duenak abestiak jaitsi ditzake. Abestiok ere bertan jartzeko asmoa dugu, Youtuben audioak kalitatea galtzen du.

## “Kultura bizitza da”

**NOAUA! Bide honetatik segitzeko asmoa duzue beraz, publikoarekin hartueman zaila den garai honetan.**

**Floxbin:** Batez ere horregatik. Iaz ilusio handia eragiten zигuten hiruzpalau kontzertu genituen adostuak eta bertan behera geratu ziren. Kontaktua zero da publikoarekin. Horregatik, taldeari dinamikotasuna emateko, taldea jendaurrean bizirik egoteko, erabaki genuen abestiak sortu eta partekatzea. Askotan disko batekin zaila izaten da kolpera hamar abesti entzutea. Aukera honekin abestiak banaka entzutea errazagoa da eta abesti bakoitzari garrantzia ematea ahalbidetzen du. Azkenean jendearengana iritsi eta gure abestiak

entzutea nahi dugu.

**Zuen lehentasuna halere zuen sormen zaletasuna asetzea da ezta?**

Egiten dugun musika lehenbizi guretzat da, sormenean bizi gara, behar dugu sortu eta abestiak egitea, hitzak grabatzea, guretzat bizitza da, behar bat da. Gero hori eskaintzen dugu entzun edo gozatu nahi duenari, batez ere zuzeneko bidez. Zuzeneko sentsazio hori parekaezina da.

**Kultura segurua dela eta sektorean alarma gorria piztu dela sarritan entzun dugu hilabeteotan. Zer diozue zuek?**

Kultura bizitza da. Eguneko eginbeharrez gain, hortik au-

rrera zer dugu? Azkenean non ondo pasa, non sentsazio onak jaso, egunerokotasunetik ateratzeko garrantzitsua da kultura. Zutabe bat da, guretzat oso pieza garrantzitsua bizitza beste era batera eramateko. Kontzertu bateko sentsazioak errepiakezina dira. Hori mugatu edo kentzea gabezia handia da.

**Kanta berriak partekatzen segi asmo duzue hurrengo hilabeteotan?**

Bai, bidean abestiak badira. Ondo bidean, aurten bi kanta gehiago konposatu eta kaleratuko ditugu, hiru ez badira. Ikusiko dugu. Gero, ia uzten diguten “normal” entseatzan, aste asko baitira bildu ezinik. Emanaldi programaturik ez dugu

momentuz. Urtea halamoduz joango dela barneratua dugu. Gu gainera gaztetxe eta tabernetan jotzekoak gara. Lokal horiek aforo aldetik ez dute emanaldirik antolatzen. Zorte pixka batekin, ia berandu baino goizago egoera normaltzen den.

**Bitartean, adi egon beharko duzue sarean.**

Hori gure esku dago, beraz seguru egingo dugula. Kontzerturik ez dugunez, gure helburu txikiak modu honetan jarri ditugu. Gure lana era xumean aurkezteko era polita iruditu zaigu eta egia esan, talde dinamika mantentzeko oso gustura gara egiten ari garenerekin.

## “Plastiko asko gure ingurunetik iristen dira itsasora”

**E**rreken eta orohar ingurunearen zaintza sustatzeko, hondakinek egiten duten bidaia luzeaz ohartarazi eta horrek dakarren kalteaz ohartarazteko, auzolan saioa antolatu zuen maiatzaren 15ean Anerreka Ingurumen Elkarteak, bilguneari izena ematen dion Aranerrekan.

Ohartarazpen argia egin zuten deitzaileek lurra landu eta zaintzeaz arduratzen diren baserritarren San Ixidro egunez. Belaunaldi ezberdinetako herritar talde bat batu zen hitzordura. “Erreken inguruan sentsibilizazioa areagotzea, natura babestea”, xede hau nabarmendu zuen Anerrekak pasa den larunbateko auzolana bideratzeko beharra azaltzerakoan.

Katiuskak jantzita eramatea eskatzen zuten, gainerako baliabideak (eskularruak, hondakinak biltzeko pintzak, poltsak...) bertan banatu zituzten. Argi jakinarazi zieten antolatzaileek bertaratutakoei; “ikusiko duzue zenbat lata, patata poltsa... dauden ingurunean”. Horren arriskuaz ere



“Erreken inguruan sentsibilizazioa areagotzea, natura babestea”, xede hau nabarmendu zuen Anerreka Ingurumen Elkarteak pasa den larunbatean antolatu zuen auzolanean.

### GARBIKETA LANAK

**“Auzolanean  
hasi zirenerako  
nabaria zen zenbat  
hondakin dagoen  
Aranerreka  
inguruan”**

ohartarazi zuten. “Haizeak eta urak bultzata errekan amaitzen dute”. Eta errekatik, kasu honetan Oria ibaira eta erriotik itsasora. “Askotan entzungo zenuten nola arrainek plastikoa jaten duten, itsasora plastikoz bete dagoela. Plastikoko horiek guztiak nonbaitetik

doaz eta horietako asko gure ingurunetik ere hara iristen direla ikusiko duzue”.

Esan eta izan. Auzolanean hasi zirenerako nabaria zen zenbat hondakin dagoen Aranerreka inguruan, errekan nahiz erreka bazterrean itsasoratze prest.

## Ingurunearen zaintzan badugu zer ikasia, zer hobetua

Badugu zer ikasia, badugu zer hobetua. Herrian bertan ditugun altxorrek hobeto zaintzen hasi gaitezke, berandu baino lehen. Bestela, arnagune ditugun eremuak galbidean jar ditzakegu. Aranerreka da horren guztiaren adibide egokia. Ingurune ezin ederragoa dugu, herri erdigunetik bertatik bertara, osteratxo eman, zuhaitz artean inguratu edota bertako paisaiaz, txorien kantuez, erreken ur soinu lasaiga-

rriaz gozatzeko aukera ematen diguna.

Baina ez gara behar bezala zaintzen ari. Argi utzi zuen Anerrekakoen auzolan saioak. Errekatxiki ingurutik hasi eta Puntapaxetik gora, errekatxo honen inguruak hondakinez garbitzen aritu ziren, deialdiarekin bat egin duten belaunaldi ezberdinetako herritarrak. Dozena erdi zabor poltsa eta gehiago erraz bete ahal izan zituzten hondakinez, bi ordu inguruko auzolan saioan.

### Batutakoa, Garbigunera

Oinez ibiltzen abiatu orduko ekin behar izan zioten lanari eta geratu gabe aritu ziren. Bi lan taldeetan banatu ziren; batzuk Puntapaxetik Errekatxiki alderako eremuan aritu ziren garbiketa lanetan, gainerakoak Puntapaxetik gora. Freskagarri nahiz edari alkoholdun (bereziki garagardoa) ontzi arinak, aurrez erretako egur puskak uretan, denetariako poltsak, estalkiak, obretan erabilitako materiala, pande-

mia garai honetan erabilitako musukoak... eta plastikoa, kolore nahiz forma anitzetan. Ingurumenak irentsi ezin duen plastikoa, baina guneren batean ikusi da lurperatzen nola doan, ingurua barruraino kaltetzeraino. Hondakinak baita errekan nahiz erreka ertzean, urak ibaira eta handik itsasoraino garraiatzeko moduan. Herritarrek bildutakoa udal langileek Garbigunera eraman zuten gero.



Bi taldetan banatu ziren. Batzuk Puntapaxetik Errekatxikira, besteak Puntapaxetik gora. Herritarrek bildutakoa udal langileek eramaz zuten Garbigunera.

## Garbitu, berriz zikintzeko

Aranerrek lanurubatean hondakinak bildu eta bereizten aritu ostean, astelehen goizean honako argazkia atera zuen Anerreka Ingurumen Elkar-teak. "Gaur goizean berriz argazkian ikus ditzakezuen hondakinak agertu dira.

Larunbateko auzolanak

garrantzia berezia du kontzientziazioaren ikuspegitik. Egoera horri buelta emateko aukera bakarra hezkuntza da. Horregatik animatzen zaituztegu horrelako egoeretan zaudetenean, zalantzarik izan ez dezazuen pedagogia egiteko egoeraz jabetzen ez direnekin".



Astelehenean zikinkeria gehiago agertu zen Aranerrek.

## “Egoera ez da ospakizunak egiteko modukoa”

Sagardo Eguna ohiko modura ospatu nahi dute usurbildarrek, baina aurten ezinezkoa izango da. Taloren bat jan eta sagardoa dastatzen ibiltzea dute gustuko denek, baina talde txikiagotan ospatu zuten joan zen urtean Arratzainberrin. Aurten zein asmo duten kontatu dio Juan Luis Astiazaranek NOAUA!ri.



“Etxean hamaiketako koxkor bat egin eta gero ikusiko dugu kalera jaitسي edo ez”, adierazi digu Juan Luis Astiazaranek.

**NOAUA! Joan zen urtean Sagardo Eguna etxetik ospatzeko deia egin zuten. Nola ospatu zenuen zuk?**

**Juan Luis Astiazaran:** Gure etxebizitza handia da, bi familia bizi gara bertan. Denok familiakoak gara, eta azkenean 8-10 elkartu ginen etxean. Herrira ezin genuen jaitسي, eta lekua badaukagu etxean, beraz, giro polita jartzeko aitzakia gutxi behar izan genuen.

### JUAN LUIS ASTIAZARAN

**“Santixabel Eguna baino garrantzitsuagoa da Sagardo Eguna”**

**Urtero frontoian ibiltzen diren horietakoa al zara? Zein da zure urteroko ohitura?**

Lehen, hamaiketako eder bat egin elkartean edo herriko tabernaren batean, frontoian

sagardoa hartu eta hantxe ibiltzen ginen eguna luzatu nahian. Goizean frontoian hasi eta ilundu arte atzera eta aurrera ibiltzen ginen Sagardo Egunean sortzen den giro ezinhobea lagun.

**Zein da aurtengo asmoa?**

Aurten ere aurreko urteko antzeko zerbait egitea da asmoa. Jada jakinarazi dute etxeratze

agindurik ez dela izango eta jende pilaketei lotuta ere gauzak asko lasaitu dituzte, baina egoera oraindik ere ez da festa giroan ospakizunak egiteko modukoa. Beraz, etxean hamaiketako koxkor bat egin eta gero ikusiko dugu kalera jaitسي edo ez. Ilobak, agian, kalera jaitسي dira, eta nire emaztea eta arrebak lana izango dute, orduan ez gara joan zen urtean bezainbeste izango, baina batzuk elkartuko gara; bost bat edo. Gogoz itxarongo dugu berriz ere Sagardo Eguna ohiturak ezarri modura ospatzeko garaia, eta ea hori datorren urtean posible den. Gainera, nik uste usurbildarrentzat Santixabelak baino egun garrantzitsuagoa dela, urte osoan zain itxaroten dugun eguna. Ea ahalik eta lasterren errekuuperatzen dugun.

## “Joan den urtean baino ilusio gutxiago daukat”

**NOAUA! Joan zen urtean Sagardo Eguna etxetik ospatzeko deia egin zuten. Nola ospatu zenuen zuk?**

**Joseba Undiano:** Orduantxe utzi berri ziguten etxetik ateratzen. Lehengusua beste herri batean bizi da, eta bisitan etorria zen amonarenera, eta Sagardo Eguna ospatzeari buruz hitz egiten egon ginen. Sagardo Eguneke kartela lortu genuen, mahaiko zapia eta sagardo botila handiaren irudia, eta izebak ekarritako sagardo botilekin dena prest jarri genuen. Familia hurbilekoak elkartu ginen etxeko terrazan, alkondara zuria eta zapia lepoan, eta sagardo dastaketa egin genuen. Arratsaldean lagunekin geratu nintzen Sagardo Eguna aprobetxatuz. Lehen aldia izan zen etxetik atera ginezkenero lagunekin egoten nintzena.

**Zain izan da orain arte zure urteroko ohitura?**

Bi plan izaten ditut. Batetik, sagardoa botatzera animatzen



“Aurten, lehengo urteko lepotik burua”. Joseba Undianok azaldu digunez. “Hala ere, ahal den moduan, baina ospatuko dugu”.

### JOSEBA UNDIANO

**“Goizeko plana pentsatzeke daukat, baina sagardo pixka bat edateko geratuko naiz lagunekin”**

naizen urtea, eta bestetik animatzen ez naizena. Lehenengo kasuan, goizean elkartzen gara

sagardoa botatzeko izena eman dugunak, eta dena prestatu ondoren botilaren bestaldetik egiten dugu Sagardo Eguna. Bazkaria izaten da ondoren, eta amaitzeko gainontzeko herriarrek arratsaldean parrandaxoa egiten dugu. Horretara animatzen ez naizen urteetan, lagunekin goizean hamaike-

takoa egiteko geratzen naiz hamaikak aldera txorizo eta haragi egosia jateko asmoz. Gero, frontoira joaten gara eta betiko plana egiten dugu, bazkaldu pixka bat eta arratsaldean, parranda.

**Eta zein da aurtengo plana?**

Goizeko plana oraindik erabat pentsatzeke daukat, baina sagardo pixka bat edateko geratuko naiz ziur. Egurdirako lagunekin planak egiten ari naiz, eta gure asmoa sagardotegira joatea da bazkari eder bat egiteko. Onartu beharra daukat joan zen urtean baino askoz ilusio gutxiagorekin nagoela. Luze doa urtea. Joan zen urtean pentsatzen genuen hura izango zela urte berezi bakarra, eta beste modu batera egin behar izan bagenuen ere ilusio hartu genuen, aurtengoan dena urtero moduan izango zelakoan. Aurten, ordea, lehengo urteko lepotik burua. Hala ere, ahal den moduan, baina ospatuko dugu.

gurria

gurria

taberna

orain  
22:00ak arte irekita!

PLATER KONBINATUAK,  
HANBURGESAK,  
ENTSALADAK, OGITARTEKOAK,  
RAZIOAK...

Ondo pasa  
Sagardo egunean!  
egin zure eskaerak  
etxera eramateko!

PUNTAPAX 12, USURBIL 943 55 93 35

Ondo pasa Sagardo Egunean!!!

Sagardo egunean  
%10eko  
deskontua!  
(eguna baino lehen  
eramateko  
eginiko eskaeretan  
soilik)

Bazkariak egunero 13:00tatik - 15:30tara  
Afariak ostegunetik igandera 19:30tatik - 22:00etara  
sukaldea irekita (neurri berrien zain)

PUNTAPAX 8 - 943 369139  
WWW.ARTZABALJATETXEA.COM

## Maiatzaren 27an, “Irudipuinak” Sutegin

Ixabel Agirresarobe eta Martin Sutegin izango dira maiatzaren 27an osteguna, arratsaldeko 18:00etan. “Irudipuinak” saioa eskaintzera hurbilduko dira.

“Saio honetan, ipuinak eta irudiak uztartuko dituzte Ixabel Agirresarobek eta Martinek; adi, Mattinen irudiak pantailan ikusi ahal izango baititugu!”, iragarri dute udal liburutegitik.

Hitzordurako izena hilaren 25a baino lehen eman ahalko da doan, usurbilkultura.eus atarian. 78 lagunentzako lekua egongo da. “Sarrera jaso ondoren ezingo bazenu saiora joan, mesedez liburutegiarekin harremanetan jarri”, ohar-tarazi dute liburutegitik.



Hitzordurako izena hilaren 25a baino lehen eman ahalko da doan, usurbilkultura.eus atarian.

**MAIATZAREN 23AN  
TXOTX EGIZU  
SAGARDO  
BOTILA BATEKIN  
🍏 🍏 🍏 ETA 🍏 🍏 🍏  
SARE SOZIALETAN  
PARTEKATU!**

**#USURBILGOSAGARDOEGUNA  
#SAGARDOEGUNA**

**HERRIKO SAGARDOA EROSI  
BERTAKO SALTOKIETAN  
EDOTA ZUZENEAN  
USURBILGO SAGARDOTEGIEI**



# txirriStra

TABERNA



**ORAIN 22:00AK ARTE IREKITA!**

*ONDO PASA SAGARDO EGUNA*

- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Pintxoak

Kontseju zaharra, Telf: 943 36 04 66

# TXIRIBOGA

TABERNA

RAZIOAK ETA PINTXOAK

*Ondo pasa  
Sagardo egunean!*

**ORAIN 22:00AK ARTE  
IREKITA!**

IRAZU KALEA 6, USURBIL



ASTELEHENETIK OSTIRALERA (08:00-17:00)  
LARUNBAT ETA IGANDETAN (11:00-22:00)



- EGUNEKO MENUA: (astelehenetik ostiralera)
- EGUNEKO PLATERA · ASTEBURUKO MENUA · KARTA
- RAZIOAK · OGITARTEKOAK · PINTXOAK..

**TERRAZA ZERBITZUA ETA ETXERA ERAMATEKO ERE!!**



Zumartegi poligonoa, USURBIL 943 371 150

# edaritegia

## BORDATXO

Pintxo bereziak

Bokatak

Plater konbinatuak

**22:00ak arte IREKITZEN DUGU!**

*ondo pasa  
Sagardo Egunean!*

Zubiaurrenea, 5. ☎ 943 37 10 42

# Beñat Lizaso, Gipuzkoako txapelduna

Igande honetan jokatu den Gipuzkoako euskal pilota egokituko bederatzigarren txapelketako buruz buruko finala jokatu eta irabazi du Beñat Lizaso usurbildarrak. Zorionak!

Lizasok Mikel Merino izan zuen aurkari eta 10-6 nagusitu zitzaion partidari. Aurretik, binakako neurketa ere jokatu zuen usurbildarrak Hilario Olanorekin batera. Azken emaitza 9-10, usurbildarraren alde. Ekainaren 26an Zumaiaiko pilotalekuan ospatuko den finalerako sailkatu dira. Neurketa hauek guztiak igande goizean jokatu ziren Lasarte-Oriako Loidi-Barren frontoian.



Lizasok Mikel Merino izan zuen aurkari eta 10-6 nagusitu zitzaion partidari. Binakako txapelketako finalera ere sailkatu da Lizaso. Beñat Lizaso eta Hilario Olanok ekainaren 26an jokatuko dute finala Zumaiaiko pilotalekuan.

## Espainiako Sektorea jokatu dute Usurbil KE-ko jubenil mutilek



Euskadiko Txapelketan txapeldunorde, Espainiako Sektorea jokatzeak aukera izan zuten iragan asteburuan Zaragozan.

Denboraldi osoko ahalegin itzelaren isla, Usurbil K.E.-ren jubenil mutilek hilabeteotan jorratu duten bidea. Euskadiko Txapelketan txapeldunorde, bigarren postuan sailkatuta amaitu zuten. Garaipenak Espainiako Sektorea jokatzeak aukera eskaini zien iragan asteburuan Zaragozan. Autobusez harantz zihoazela atera eta helarazitako talde argazkia

duzue ondokoa. Etxekoekin, zaragozarrekin, Barçarekin eta Valladolidekoekin lehiatu dira usurbildarrak. Hirutik bi neurketa irabaztetik hurbil izan ziren azken emaitzei erreparatzen badiegu, hiruzpalau goleko tartearekin ezin izan zituzten aurkariak garaitu. Zoriontzekoa halere, Zaragozaraino jorratu duten denboraldi osoko bidea!

## Nahia Zudaire, Europako txapeldunordea



Igerilari zubietarrak zilarrezko domina eskuratu zuen Madeiran jokatutako txapelketan, 400 metroko modalitatean.

Madeiran ospaturiko Europa mailako igeriketa paralinpiar txapelketan, igerilari zubietarrak zilarrezko domina eskuratu du 400 metroko modalitatean eta Espainiako marka hautsi du.

### Bi marka hobetu ditu

“Nahia Zudaire Europako Txapeldunorde 400 librean! Bi marka pertsonal egin ditu

gainera Nahiak. Batetik, 5:06:16rekin Espainiako errekor berria ezarri du eta gauza bera egin du 200eko pasean ere, kronoa 2:27:85an geratuz”, berri eman du Buruntzaldea IKT-k.

“Zilarra atzo gauean. Milaka gauza oraindik ere ikasteko eta disfrutatzeak, mila esker bidean zaudeteno”, adierazi du Zudairek sare sozialen bidez.



# Usurbil ere, Palestinarekin

Israelen erasoaldia salatu eta palestinarrei babesa adierazteko asteburuan mundu mailan egindako mobilizazioen artean zen, Tadamun elkargune internazionalistak maiatzaren 15ean Mikel Laboa plaza deitu zuen elkarretaratzea.

Nazioarteko hedabide ezberdinen arabera dagoeneko gutxienez 200 baino gehiago ziren aste hasierarako, astebeteko tartean Israelgo armadak Gazan erahil dituen pertsonak, tartean 40 haur baino gehiago eta familia bat baino gehiagotan, kide ugari. 1.050 zauritu eragin dituzte. Milaka lagun geratu dira etxerik gabe. Noiz-nahi eraikinak goitik behera erortzen ikusten ari gara. Ikaragarriak dira palestinarren



Tadamun elkarguneak deitutako elkarretaratzean jende asko batu zen.

## ELKARTASUNA

**Tadamunek antolatu zuen elkarretaratzea, "Aurrera Palestina! Estatu Sionistari sua" aldarrpean**

aurkako erasoaldi eremutik heltzen ari diren irudiak.

Mundu mailako agintari bat

baino gehiago, Israelen erasoaldia txalotu edo bestaldera begira. Kanean, munduko txoko zenbaezinetan, hamaika mobilizazio Israelgo erasoaldia salatu eta palestinarrei babesa adierazten. Tartean, Usurbilen. Tadamun elkargune internazionalistak deituta, "Aurrera Palestina! Estatu Sionistari sua" aldarrpean egindako elkarretaratzearen bidez.

# Michelingo langileak Tubacexeko kaleratzeen aurka

Tubacexeko kaleratzeen aurka agertzeaz gain, "enpleguaren alde borrokatzeko prest" daudela adierazi zuten Michelingo langileek, maiatzaren 14an lantegi atarian egin zuten elkarretaratzean.

Bizkaiko Barakaldo eta Sestaoko lantegiko zuzendaritzak 569 langileei eragingo zien Enplegu Erregulazioko Espedientea aurkeztu zuen iazko udan. Otsailean 83 langile kaleratu zituen. Berriki ordea, Euskadiko Auzitegi Gorenak justifikaezintzat jo zuen enpresa honetako arduradunen erabakia, lantegiak ez zuelako beharrezko dokumentazio guztia aurkeztu. Zuzendaritzak kaleratutako langileak onartu zituzten be-



Elkartasuna adierazi zieten iragan ostiralean Michelin lantegiaren atarian.

## LANGILEAK BORROKAN

**Tubacexen 92 egun daramate greba mugagabeen**

rriz, baina langileen batzordeak egunotan salatu du ez dituztela berriz ohiko lanpostuetan txertatu nahi. Gizarte Segurantzaren alta eman zaie

eta soldatak kobratzen dituzte lanean arituko balira bezala, baina etxean segitzen dute, lantokira joan ezinik.

Langileen batzordeak hila-beteotan gogor borrokatu da kaleratzeak saihesteko. 92 egun daramate greba mugagabeen. Elkartasuna adierazi zieten iragan ostiralean, besteak beste, Michelindik.

## Pentsio duinen aldeko bizikleta

### martxa

Maiatzaren 24tik 29ra Gipuzkoa zeharkatuko duen ekimenak Usurbil izango du geltokietako bat. Gipuzkoako Pentsiodunak bilgunearen deialdiarekin bat egiten dutenak bizikletaz helduko dira maiatzaren 28an Debatik udalerrira honetara.

Biharamunean, hilaren 29an Usurbildik Donostiara joango dira. Bizikleta martxa hain zuzen, hurrengo larunbatean, 17:00etan Gipuzkoako hiriburuko Alderdi Ederretik abiatuko den manifestazioarekin amaituko da. Egun horretarako estatu mailan ere mobilizazioak deitu dira, pentsio publiko duinak, bidezkoak eta nahikoak eskatzeko. Xehetasun gehiago datorren astekarian.

## Aginagako txokoetako izen-ematea zabaltzeaz da

Gaztetxoen udako oporraldiaren hasierarako txokoak antolatu ditu Aginagan, San Praixku guraso elkarteak. Ostiral honetan (maiatzak 21) zabalduko dute izen ematea, maiatzaren 31ra arte.

### Ekainaren 21etik uztailaren 2ra arte

Kontuan izan baita; udako txoko hauek ikasturtea amaitu eta berehala jarriko dituzte martxan eta bi asteko iraupena izango dute. Ekainaren 21ean abiaraziko dituzte San Praixku Guraso Elkarteak txoko hauek, uztailaren 2ra arte.

Ekimen honi buruzko xehetasun gehiago nahi duenarentzat, helbide honetara idatzi daiteke: gurasoelkartea@aginaga.eskolatxikiak.eus

# Astelehenean hasiko da matrikulazio garaia Zumarte Musika Eskolan

## Maiatzak 24-28 bitarte

### Ordutegia presentzialki:

■ Asteartea eta osteguna  
10:00-12:30 / 17:30-19:00.

### Eskaintza:

■ Musika Txokoa, Musika Mintzaira, tronpeta, tronboia, saxofoia, biolina, perkusioa, klarineta, eskusoinua, trikitixa, panderoa, pianoa, txistua, gitarra, flauta, organoa, abesbatza, talde instrumentalak.

### Matrikula nola egin:

■ On-line datuak bete [www.zumarte.eus](http://www.zumarte.eus) orrian edo dagokion inprimakia eskuz bete eta musika eskolako bulegoan entregatu (Kale Nagusia, 45).

### Ordainketa:

■ Plaza kopuruen zozketak egin eta onartutako ikasleen zerrendak argitaratu ondoren, adierazitako kontu korrontetik, ikaslea onartua izan den ikasgaien matrikularengatik ordaindu beharreko tasaren %10 kobratuko da ekaina bukaeran, %40 iraileko lehen astean eta %50 abendua hasieran. Lehengo urteko matrikulen eta kuoten prezioa mantenduko da.



Matrikula on-line egin daiteke [www.zumarte.eus](http://www.zumarte.eus) web orriaren bidez.

■ Plaza banaketaren arautegia aplikatuko da.

### Hobariak:

■ Familia ugarietan, matrikularen prezioan %40ko deskontua ikasle gazteenari. Horretarako, familia ugariaren txartela eraman beharko da bulegora.

■ Unitate familiar bereko 3 senide edo gehiago matrikulatuta dauden kasuetan, matrikularen prezioan %40ko deskontua ikasle gazteenari. Ikasle gazteenak bixkiak izanez gero, ikasle bati bakarrik egingo zaio deskontua.

### Oharrak:

■ Instrumentua ikasten hasten diren artean, tronboia, saxo-

foia, tronpeta edo biolina ikasten hasten direnei, nahi izanez gero eta ikasleentzat egokiak badira (tamaina e.a), Zumartek dituen instrumentuak urtebetez utziko zaizkie.

### Ordutegiak:

■ Instrumentuko ordutegiak: behin-behineko ordutegiak telefono edo bideo-dei bidez adostuko dira.

■ Pandemiaren neurriak mantentzen diren bitartean, Musika Txokoko ordutegiak bezeziak izango dira.

### Matrikulazioari eta ordutegiei buruzko informazio gehiago:

■ 943 371 594.  
■ [www.zumarte.eus](http://www.zumarte.eus)

## Basabi eta Kimuren kontzertua, ekainaren 5ean

Artistetako baten osasun-arazoak tarteko, maiatzaren 15ean izatekoa zen kontzertua atzeratu egin behar izan zuten. Ekainaren 5ean izango da Basabi eta Kimu musika taldeen emanaldia, arratsaldeko 19:00etan Sutegin.

### Sarrera, 10 euro

Sarrera eskuratu zutenek joateko aukera izango dute, baina nahi duenak dirua itzultzeko eskaera ere egin dezake [kultura@usurbil.eus](mailto:kultura@usurbil.eus) helbidera idatzita edo 943 371 999 telefonora deituta. Era berean,

aurreko txandarako sarrerarik lortu ez zuenak bigarren aukera hau baliatu ahal izango du, oraindik ere badira-eta batzuk salgai usurbilkultura.eus atarian. Prezioa, 10 euro. Antolatzailea: Jexux Artze K.E.

## Maiatzaren 29an, Usurbil K.E.-ren batzarra

Eskubaloi taldeen bilguneak 2021eko urteko batzar nagusia deitu du maiatzeko azken larunbaterako, hilaren 29rako Sutegin. Lehen deialdia goizeko 11:00etan finkatu du, bigarrena orduerdi berandua, 11:30ean. Gaiok hartuko dituzte ahotan:

■ Adin eta maila guztietako taldeen balorazioa.

■ Hurrengo denboraldirako aurreikusten den talde eta jokalarri kopurua.

■ Urteko diru sarrerak eta irteerak.

■ Egoera ekonomikoa eta aurreikuspenak.

■ Denboraldi osoan hartutako neurrien azalpena eta balorazioa.

■ Zuzendaritzaren berritzea.

## “Usurbil astindu” zikloa

Hurrengo hitzorduak hauek izango dira:

### Maiatzak 22, larunbata

■ 11:00 “Ezker Abertzaleko diagnostikoa eta plan feminista” Sutegin.

■ Hizlaria: Aiora Epelde.

### Maiatzak 29, larunbata

■ 11:00 “Aitzaga Elkartearen berrantolaketa eta kultur taldearen eraketa” Potxoenean.

■ Antolatzaileak: Sortuko kongresuko batzordea, Sortu eta Ernai.

**Uraitz, s.l.**  
Igeltseritza  
Orokorra

693 059 392  
[uraitz@uraitz.com](mailto:uraitz@uraitz.com) USURBIL

Zuen publizitatea hemen

943 360 321  
[publizitatea@noaua.eus](mailto:publizitatea@noaua.eus)

**ALDAMU**

KONPONKETAK  
KALE NAGUSIA 10- atzekoaldea  
943 372 795

# Oiardo kiroldegia 22:00ak arte egongo da zabalik

Astelehenetik ostirale-  
ra, Oiardo kiroldegia  
22:00ak arte dago za-  
balik berriro. Ez da indarrean  
sartu den neurri bakarra. Kirol-  
degiko aldagelak ere erabilga-  
rri daude orain.

Maiatzaren 9an onartu zen  
dekretuak zenbait aldaketa  
eragin ditu Usurbilgo Oiardo  
kiroldegian. Hauek dira maia-  
tzaren 17tik aurrera indarrean  
jarri diren neurriak:

■ Kiroldegiko aldagelak berri-  
ro ireki dira, eta duxak erabili  
ahal izango dira. Duxatzean  
izan ezik, musukoa erabiltzea  
derrigorrezkoa da aldagelan.

■ Kiroldegiak ohiko ordutegia  
berreskuratu du:

-Astelehenetik ostiralera:

Goizez: 07:00 / 12:30.

Arratsaldez: 14:30 / 22:00.

-Larunbatetan: 09:00 / 21:00.

-Igandetan: 09:00 / 13:30.

■ Kirol elkarteek erabilera  
zabalagoa egin ahal izango  
dute, eta gimnasioko erabili-  
tzaileek ere txanda bat gehia-  
go izango dute (kardio gu-



Astelehenean neurri berriak sartu ziren indarrean. Kiroldegiak ohiko ordutegia berreskuratu du. Argazkia: Oiardo.

## DAGOENKO INDARREAN

**“Kiroldegiko aldagelak  
berriro ireki dira,  
eta duxak erabili  
ahal izango dira”**

nean eta pisu libre eremuan):  
21:00-22:00takoa, alegia.

■ Ikastaroei dagokienez, 6ko  
azpitaldeen antolaketa berres-  
kuratu da.

■ Aldaketak gimnasioko ere-

muetan:

-10 plaza egongo dira kardio  
eremuan, eta plaza hori har-  
tzen dutenek kardio makinak  
zein indar makina gidatuak  
erabili ahal izango dituzte, beti  
ere orain arte bezala higiene  
neurriak betez.

-Pisu librearen eremuan edu-  
kierak 3 pertsonakoa izaten  
jarraituko du.

■ Futbol taldekoek Harane  
22:00ak arte erabili dezakete.

## Kiroldegiko udako eskaintzan izen ematea ixtear

Epea: Maiatzak 20.

Eskaintza: Helduentzat spin-  
ning, pilates, mantenu gimnasia  
edota aquagym. Haurrentzako,  
HH edota LH-n ikasten ari di-  
renentzako igeriketa ikastaroak  
iragarri dituzte; LH 1. mailako-  
tik gorako ikasleentzako eskala-  
da eta LHko ziklo osoarentzat  
Kirol Txokoak.

Informazioa: 943 37 24 98.

## Eskola Kirola: entrenamenduak egin daitezke, lehiatu ez

### Udal kirol instalazioak

■ Irekita jendearentzat: aurre-  
tik zita eta %50eko aforoare-  
kin. Maiatzaren 17tik aurrera  
22:00ak arte irekita.

■ Aldagelak eta duxak erabi-  
li daitezke (duxak banakako  
erabileran).

■ Jardueren programa: ba-  
rruko instalazioetan egiten  
dena 6 pertsonako talde-

tan eta beti maskarilarekin,  
kanpoan egiten den intentsi-  
tate handiko jarduera fisikoko  
aparteko uneetan eta igerile-  
kuetan izan ezik.

### Eskola Kirola

■ Entrenamenduak egin dai-  
tezke, 6 pertsonako taldeetan,  
beti musukoarekin. Lehiake-  
tak etenda daude.

### Kirol Federatua

■ Federatuen entrenamen-  
duak egin daitezke, taldeen  
mugarik gabe.

■ Federatuen lehiaketak anto-  
latu daitezke baina publikorik  
gabe.

### Jarduera fisikoa aire zabalean

■ Egin daiteke 6 laguneko tal-  
deetan gihienez.

### Maskara

■ Momentuoro erabili be-  
har da salbuespen hauekin:  
eremu naturaletan, hirigune  
periferikoetan (oinezkorik  
gabe), igerilekuetan, baimen-  
dutako federatuen entrena-  
mendu eta lehiaketetan, eta  
kanpoan egiten den intentsi-  
tate altuko jarduera fisikoko  
une berezietan.

**www.noaua.eus**  
USURBILGO ATARIA

**URDAINTZI S.L.**  
Eraikuntzak  
649 43 54 75  
943 36 72 64  
IT-ak egiten dira  
**ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK**

Josue  
Igeltseritza  
606 37 21 05  
Atallu pol.28 USURBIL

ARRANDEGIA  
**PELLO**  
ASTEARTETIK-LARUNBATERA  
8:30-13:30  
EGIN ZURE ESKAERAK WHATAPP-ETIKI  
650 31 31 91 USURBIL

# Ikastolen aldeko egitasmo berria martxan da: Tanta

Euskal Herriko berezko hezkuntza proiektuaren aldeko elkartasun adierazpena da Tanta, herritarrek Euskal Herriko ikastolen proiektuaren alde ekarpena eginez egikaritutakoa. Ekimen horretan txartel batzuk jarri dituzte herritarren esku. Herritarrek bost euroko ekarpena egingo diote Euskal Herriko ikastolen proiektuari, Tanta txartel bakoitzeko eta, trukean, 60.000 euroko zozketa batean parte hartuko dute. Zozketa ekainaren 25ean egingo dute, notario aurrean. Udarregi Ikastolako idazkaritzan tanta txartelak erosteko aukera dago ordura arte, bost euroren truk.

## Ikastolen jaiak finantzatzeko

Tanta egitasmoa ikastolen jaien ekimenez sortu da. Azaldu dutenez, jaiok finantzatzeko, egunean bertan eta urtean zehar diru sarrerak lortzeko bideak irekitzen dira (arropa salmenta, txosnak, tonbola, sarrerako kutxak, kultur eta kirol ikuskizunak...). Baliabide horietako bat zozketa izan da. Jai bakoitzak bere zozketa antola-



Tanta txartel bakoitzeko, 60.000 euroko zozketa batean parte hartuko duzu.

## TANTA EGITASMOA

**“Udarregi Ikastolako idazkaritzan tanta txartelak erosteko aukera dago, bost euroren truke”**

tzen du; dirua, auto bat, bidaiabat... horrelako zozketak egin ohi dira. Helburua bera izanik (jaien autofinantzaketa), bost zozketa horiek egin beharrean, ikastolen jaiak elkartasun txartelak egitea erabaki dute, eta Tanta sortu dute.

Tanta egitasmoarekin Ikasto-

la eredia ere azaldu nahi dute; nondik datozen, non dauden eta nora joan nahi duten adierazi nahi dute. Modu labur eta didaktikoan, ikastolen Historiaren eta egitekoen berri eman nahi dute, eta horretarako, ikastolen ibilbidean gako izan diren gertakari, une eta pertsonen berri emango da, bilduma bat osatuz. Tanta abiatzeko aukeratu zuten lehen pertsona Elbira Zipitria andereñoa izan zen. Bigarren ekitaldirako, berriz, Saioka testu-liburuen proiektua aukeratu dute.

## Beherantz egin du langabeziak

30 langabetu gutxiago apirilean Usurbilen, hilabete lehenagoko datuekin alderatuz gero; martxoan 268 langabetu zituen udalerririk honek, 238 apirilean, Estatuko Enplegu Zerbitzuak kaleraturiko zifren arabera. Pandemia hasi zenetik langabetu kopurua handiagoa izan da; 2020ko otsailean erregistratu zen azkenekoz iragan apirilekoa baino datu baxuagoa, 221. Iazko martxoan 243. Orduetik langabetu kopuru gehiago zenbatu ditu Estatuko Enplegu Zerbitzuak; uztailean jo zuen goia, 299 langabeture-

kin. Orduetik gorabeherak gorabehera, beheranzko joerari eutsi dio.

Eskualdean ere murriztu da langabetu kopurua; 3.394 martxoan, 76 gutxiago apirilean, 3.318. Gipuzkoan ere 854 langabetu gutxiago denbora tarte berean; 34.564 langabetu martxoan, 33.710 apirilean.

### Kontratazioa ere beherantz

Baina aldaketarik ez datuok kolektiboka aztertzen baditugu. Gizonezkoak baino (111) emakumezko langabetu gehiago (127) izaten segitzen du

Usurbilek. Gehienak, 162 zerbitzuen sektorean.

Langabetu kopuruarekin batera kontratazioak ere beherantz egin du, 234tik 207ra apirilean. Ia denak aldi baterako kontratatu ziren, 192. Oraingoan emakumezko gehiago (111) kontratatu dira Usurbilen, gizonezkoak baino (96).

Beheranzko joera bera bertan da kontratazioan, Buruntzaldean eta Gipuzkoan ere. Eskualdean, 1.886tik 1.723ra, Gipuzkoan 19.925 17.806ra murriztu da kontratatu kopurua.

## “Eta ni? beharren lorategiaz” aritu ziren Arremanitzekin

Lorategiaren metafora erdigunean hartuta, larrialdi egoerak izandako ondorioez aritu ziren Hitz Ahok antolatutako online saioan. Bakoitzaren beharrak identifikatzetik abiatuta, beharrak asebetetzeko tresna erabilgarriak eskura jarri nahi izan zituzten antolatzaileek.

Lorategiaren ekimenak aukera ematen du bakoitzaren barnean bilaketa egin eta behar horiek identifikatu ahal izateko. Norberaren barnean bilaketa egiteko proiektua da Beharren Lorategia. Lore forman irudikatutako petaloak beharrak bailiran, bakoitzaren barne oreka aurkitu eta asebetetzea lortzeko irudi grafikoa sortzen du Beharren Lorategiak. Modu horretan, bakoitzak bere egoera propioa aztertu, eta hori hobetzeko eman beharreko urratsak aztertzea du helburu proiektuak.

## Errigorak marka guztiak hautsi ditu

Euskal Herri mailan, 30.000 pakete arroz eta pasta, 109.000 litro olio eta 245.000 ontzi kontserba banatu dituzte 8.200 etxe baino gehiagotan.

Usurbilen ere eskari kopuruak nabarmen gaitu du aurreko urteetan, Nafarroa hegoaldeko tokiko ekoizpena eta euskalgintza laguntzea xede duen kanpainak izandako harrera. 188 olio bidoi banatu ditugu, 940 litro guztira. 80 kontserba, arroz eta pasta kaxa. Guztira, adi, 10.755 euro bideratu dituzte 70 usurbildarrek egitasmo honetara. Buruko 150 euroko ekarpena batatzeko.

**Informazio gehiago:**  
errigora.eus

**ETXEBIZITZA****Salgai**

Etxebizitza salgai, kale Nagusia 39, udalxte aurrean. 58m (bi logela) eta garaje itxia prezioan barne. 649850515.

91m<sup>2</sup> pisua salgai Txaramunto kalean. 3 logela, sukaldea, 2 komun, egongela. 11m<sup>2</sup> terraza, 8m<sup>2</sup> trastelekua, 24m<sup>2</sup> garajea erosteko aukera. 678949958.

Etxebizitza salgai Kalezarren: 79m<sup>2</sup> berriua, 2 gela, komuna, sukaldea, jangela, egongela, harrera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m<sup>2</sup> garajea aukeran. 686462705

**Alokairuan**

Usurbilgo gizonetako bat naiz eta alokairuan pisu bat hartuko nuke Usurbil edo inguruan. 659185107

Alokatzeko etxe baten bila ari naiz. Bi pertsona gara eta txakurra daukagu. 675189500

**MOTORRA****Salmenta,****garajeak**

Ezinduentzako motorra salgai. 2018ko abuztuko motorra, gutxi erabilia. 625701616.

Garage bat alokairuan, 22m<sup>2</sup> Santuenean. 671547567.

Atxegalden garaje bat nahiko genduke alokairuan edo erosteko. 628498326

**LANPOSTUAK****Lan eskaintzak**

Emakume bat behar da umeak zaindu eta etxeko garbiketa egiteko; Familia zamarik gabekoa. Haurren zaintzan esperientzia izatea beharrezkoa. Nahiago da euskara ondo menperatzen dakien pertsona izatea. 638738505

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali CV info@quantum.eus helbidera

Txiribogan asteburuetarako lan-gileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

**LANPOSTUAK****Lan eskaerak**

Pertsona helduak, garbiketak, peoi lanak edo pintore laguntzaile moduan aritzeko prest, gizonetako bat naiz. 622747833

Pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest, neska bat naiz. 622747833

Arratsetarako lan bila nabil. Euskalduna naiz, usurbildarra. Haurren zaintzan edo etxeko lanetan aritzeko prest. 61627 3785.

Neska orduka eskaintzen da etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko. Titulu soziosanitariorekin. 612 433 485.

Neska orduka eskaintzen da etxeko lanetarako edo haurrak zaintzeko. 631 89 49 90.

Adinekoak zaintzeko lan bila nabil. Geriatria ikastaroen egina dut. Orduka nahiz egun osoz lan egiteko prest. 604 349 970.

Nikaraguako neska arduratsu eta ondradua, garbiketa lan eta adinekoen zaintza lanetan aritzeko

erabateko prestasuna. Esperientziaduna. 602 481 854 / anisiez@a@gmail.com

Pertsona helduak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest dagoen emakume bat naiz. Ordu-tegi aldetik disponibilitate osoa. 608935674 (Anjela)

Garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko neska bat naiz. Ordukako lana edo interna moduan 603315126.

Orduka edo interna moduan lan egingo nuke pertsona helduak zaintzen, etxeko lanak edo garbiketa lanak egiten 620081572

Interna moduan pertsona helduak zaintzeko prest. 14 urteko esperientzia, erreferentzia onak. Profesionaltasun ziurtagiria. 667907196

**BESTELAKOAK**

Etxe bateko altzariak saltzen ditut. 600 360 809.

Josteko remalladora Donna 800 salgai. Berria dago, biz-

pahiru aldiz erabilia soilik. Prezioa: 270 euro. 652 702 237 (Zorione).

Filologia ikasketak ditut, ingeleseko klaseak ematen ditut bakarka edo taldean. Maila guztiak. 660845780 / bou-chrahajhar@outlook.com

Giltza batzuk galdu dira Zumartegi poligonoan, tren geltokiaren inguruan. Giltzen artean da Opel ikurra duen bat. Topatu baduzu jar zaitze harremanetan: 650 488 094.

Sagarrak txikitzeko egurrezko makina bolantearekin salgai. 678082127 (Aitor)

Sukaldeko Ekonomia oso egoera onean saltzen dut, gutxi erabilia. 678082127 (Aitor)

**TRUKEAN, OPARI**

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburua... Atalluko Garbigunean, doan hartu daitezke. Asteleheneetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbategan: 9:00-13:00.

**Aupa Julen!**

Maiatzaren 10ean 9 urte alajaina! Zorionak eta urte askoan! Muxuak etxekoen partez!

**Zorionak Peru!**

Jada 10 urte! Muxu handi handi bat Eire, aitatxo eta amatxoren partez!

**Zorionak printxesita!!**

5 urte potolo bete dituzu, muxu asko asko etxekoen eta familiaren partez.

**Zorionak Naiara!!!**

Maiatzaren 20an, 10 urte beteko dituzu!! Handitzen ari zaigure etxeko pinpilinpauxa! Ondo ondo pasa eta ospatu zure eguna!! Eta zure bizkotxoaren zain egongo gara. Txokolatzeko 10 muxu handi familia osoaren partez!!

**Heriotzak****Valentina****Roman****Barbero**

Maiatzaren

11n hil zen,

75 urterekin

**Goardiako farmaziak**

**Osteguna 20** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Ostirala 21** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

**Larunbata 22** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Igandea 23** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Astelehena 24** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

**Asteartea 25** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Asteazkena 26** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Gainontzeko datak [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) web orrian dituzue ikusgai.**

**Osteguna 27** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

**Ostirala 28** GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

**Larunbata 29** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

**Igandea 30** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

LARUNBATETAN,  
Usurbilgo bi farmaziak ireki-  
ta egongo dira: 9:00-13:30

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**

ETXEBARRIA AZUETA, AITZIBER

Andre Kalea, 48 "Cuevas"

943 55 17 93

# Agenda maiatza

## 21 ostirala

- **9. Sagastiak Loretan: "Ilargia eta egutegi biodinamikoa"**, 15:30-18:30, Potxoenean. Izen ematea: usurbilkultura.eus / 943 361 114 / alkartasuna.eus
- **Tailerra Santuenean: "Bertako sendabelarrak"**, 18:00-20:00 Santuenea Elkartean.

## 22 larunbata

- **"Usurbil astindu" zikloa.** 11:00etan Sutegin. Hitzaldia: "Ezker Abertzaleko diagnostikoa eta plan feminista". Hizlaria: Aiora Epelde.

## 23 igandea

- **Sagardo Eguna etxetik ospatzeko deia** Egun osoan zehar, osasun neurri guztiak errespetatuz.

## "Jantzi balkoiak lehengo urtean banatu genituen plastikoekin"

Sagardo Eguna ospatzeko modurik ez da izango. Ez behintzat orain arte egin izan den moduan: plazan eta sagardozaletan inguraturik. Beraz, etxean edota lagun-talde txikitara ospatu beharko da aurtengo edizioa.

Pandemiak pandemia, txotx egiteko aukera ez da desagertu. Igande honetan zabaldu sagardo botila bat, atera argazki bat eta gustu baduzu, sare sozialetan partekatu. Argazki txukunenak aldizkari honetan jasoko ditugu. Bi traola hauek baliatu: #UsurbilgoSagardoEguna edota #SagardoEguna

### "Ez gaitzala egoerak atzera bota"

Antolatzaileek hainbat gomendio luzatu dituzte: "jantzi balkoiak lehengo urtean



Igande honetako ere ezohiko Sagardo Eguna izango da.

banatu genituen eta gorde zenituzten plastikoekin, atera maindire txuri bat eta trapu gorriren batekin atondu, atera armairutik baserritar jantziak, ireki sagardo botila eta egin txotx! Ez gaitzala egoerak atzera bota eta ospa dezagun Usurbilgo Sagardo Eguna, ahal den moduan eta beti ere osasun neurriak zainduz".

## 9. Sagastiak Loretan: "Ilargia eta egutegi biodinamikoa"

Maiatzak 21 ostirala

- 15:30-18:30, Potxoenean.
- Izen ematea: 943 361 114 alkartasuna.eus / usurbilkultura.eus
- Prezioa: 15 euro.
- Antolatzailea: Alkartasuna.

## Bertako sendabelarrei buruzko tailerra Santuenean

Maiatzak 21 ostirala

- 18:00-20:00, Santuenea Elkartean.
- Tailerra teorikoa eta praktikoa da, eta gertuko sendabelarrez ariko dira.
- Izen ematea: 670 027 731.
- Antolatzailea: Santuenea Elkartea.

### Datozenak

## Azken ostiralaren atarian

Hilero moduan, maiatzeko azken ostiralerako euskal presoek eskubideen aldeko elkarretaratzea deitu du Sarek, 20:00etan Mikel Laboa plazan.

Euskal presoak hurbildu eta lau hamarkada luzez indarrean segitzen duen salbuespeneko espetxe politika ezabatzearen aldeko adierazpen bateratu plazaratu zuten eragile sindikal eta politikoa anitzek Bilboko Euskalduna Jauregian joan den abenduan. Sarek eta Etxerategen berri eman dutenez, 125 udalbatzek bat egin dute adierazpen honekin, tartean Usurbilgoak.

## Usurbil KE-ren urteko batzarra

- Maiatzak 29 larunbata.
- Ordua: lehen deialdia 11:00etan, bigarrena 11:30ean.
- Tokia: Sutegi.
- Gai zerrenda:
  - Maila guztietako taldeen balorazioa.
  - Hurrengo denboraldirako aurreikusituen den talde eta jokalarikopurua.
  - Urteko diru sarrerak eta irteerak.
  - Egoera ekonomikoa eta aurreikuspenak.
  - Denboraldi osoan hartutako neurrien azalpena eta balorazioa.
  - Zuzendaritzaren berritzea.

**Inaki Iturgintza**  
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA  
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK  
info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com  
**600 024 825**

**GAR**  
GRUPO MONROY  
BERRITZE ZERBITZU INTEGRALAK  
**628 45 78 39**  
reformasmonroy@hotmail.es  
TXARAMUNTO 14, 2 C USURBIL

ETXETRESNEN   
**KONPONKETA-SALMENTA**  
MARKA GUZTIAK  
 DESHUMIDIFIKADOREAK ERE BAI!  
**645417665**  
xabier

**www.noaua.eus**  
USURBILGO ATARIA

# OSASUN GIDA 2021



## USURBIL OPTIKA

Bigarren lente parea doan:  
lente progresiboetan,  
irakurtzeko lenteetan  
eta ikus-urrunekeo lenteetan

2. lente parea doan

# 2x1

PROGRESIBOETAN  
IRAKURTZEKOETAN  
IKUS-URRUNEKOETAN

Zubiaurrenea, 10

☎ 943 370 269 • 675 708 654



## Iturralde botika

Tomas Iturralde botika

33/17 PEZ

- Dosifikazio sistema pertsonalizatua
- Dermofarmazia
- Produktu homeopatikokoak
- Maisu formulak

Borda berri 1, 20170 USURBIL 943 36 33 95

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

## USURBILGO HORTZ KLINIKA

ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA  
EKAITZ GARMENDIA MERINO

RPS: 28/17

Nagusia 10, 1.C4 943 37 08 78 USURBIL



Osakidetzarekin  
hitzarmena

Errekalde 59, Donostia 943 105 205

## zenta

### ORTOPEDIA BAT BAINO GEHIAGO

Puntako teknologia zure  
autonomiaren zerbitzura

- Laguntza produktuen  
salmenta eta alokairua.
- Etxez-etxeko zerbitzu  
tekniko espezializatua.
- Etxebizitzaren egokitzapena.

[www.zenta.es](http://www.zenta.es)



# Kima

MASAJE LEKUA

• Kirol eta terapeutiko masajeak

Txirrindulariaren azterketa  
biomekanikoa

☎ 943 366 197 Kale Nagusia, 44- behea • LASARTE-ORIA

# Oinutsik

PODOLOGIA ETA POSTUROLOGIA

## 943 11 09 54

etorri zaitetz zure oinen eta posturaren  
azterketa bat egitera!

*Sustraitu osasuna oinetatik*

# Edertu zaitez!

**INDIBA**  
DEEP BEAUTY  
PROFIC BODY CARE SYSTEM

**DESKONTU BEREZIAK**

• ZELLULEN BIRSORTZEA • LIPOLISISA • MODELAKETA • ERREAFIRMAZIOA  
• AZALAREN TONIFIKAZIOA • OXIGENAZIOA • HIDRATAZIOA • LIFTING

✓ ZELLULITISAREN GUTXIAGOTZEA ✓ AURPEGIA GAZTETZEA ✓ ZIMURREN LELINKETA  
✓ BULARRAREN ERREAFIRMAZIOA ✓ SILUETAREN HOBEKUNTZA ✓ AZALAREN INDARTZEA

**Enar**  
ESTETIKA

BESTE TRATAMENDUAK : PRESOTERAPIA TERMOLINEA ELEKTROKARDIOLOGIA KONTAKO TERAPIA  
munalurra 2, USURBIL 943 571680



**Ane**  
ILEAPAINDEGIA

*Artzabal*

**JUBILATUENTZAT  
AUKERA ONENA**

Artzabal baserria 688 75 96 96

KALITATEZKO PRODUKTUEKIN ESTILISMOA ETA ESTETIKA LANTZEN DITUGU

**INTZA**  
ILEAPAINDEGIA  
ESTETIKA ZENTROA

Ile mota guztiak. Pertsona mota guztiak.

Eguerdian irekital Nagusia 8, Usurbil - Tel: 943 36 36 41



**Elexpe**  
ileapaindegia

- Betileen tintaketa eta permanentea
- Estetika • Tatuaiak
- Zutikako eta etzandako solarium-a

Muna Lurra 12, Usurbil • 943 370 462

**GOLDWELL**  
**ELUMEN**

9.00etatik 19.00etara zabalik

*ileapaindegia*

**mistoa**

**BIOLOGO BATEK  
MIKROSKOPIOZ  
EGINDAKO BURU-AZAL  
ETA ILEAREN AZTERKETA**

**KONTSULTA DOAN!**

Zubiaurrenea 4, Usurbil • 943 361 951